

economía al servicio de las personas

ekonomia pertsonen zerbitzura



reas
euskadi

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria



reas pertsonen eta euren inguruaren zerbitzura jarritako ekonomia sustatzen duten zenbait enpresa eta erakunde sozial biltzen dituen sarea da.

















reas en asmoa gizartearen eraldaketa bilatzen duten proposamen kolektiboak sendotzea da –giza garapen jasangarriaren ikuspuntutik–, bereziki ekonomiaren esparru desberdinetan zentratuta: finantziarioa, produkzioa, komertzializazioa eta kontsumoa.

reas ek enpresa solidarioen sare bat sustatzen du eta gizarte aholkularitzarako eta kalitatea hobetzeko tresnak aplikatzen ditu, kontsumo arduratsua eta bidezko merkataritza eta merkataritza ekologikoa bultzatzeaz gain.












reas ek baliabide finantzario etiko eta solidarioen garapena babesten du, eta, gainera, herritarren sentsibilizazioa sustatzen du, aldaketarako eta gizarte partaidetzarako hezkuntzan indarra eginez.

reas toki, estatu eta mundu mailako ekonomia solidarioko beste sare batzuekin koordinatzen da, eta, gizarte zibilaren barruan, gizarte eta mundu zuzen, solidario eta hartzaileagoa eraikitzeko lanean ari diren herri ekimen eta mugimenduak babesten ditu.

reas euskadi 1997an sortu zen, eta gizarteratze zein laneratze arloan eta lan, okupazio edota lanagintzarako trebakuntzan ari diren hogeita hamar bat erakundek osatzen dute. Lan hori zerbitzu eta jarduera produktiboen garapeneraren bitartez egiten da. Honakoak dira zerbitzu eta jarduera horiek, besteak beste:

-  ostalaritza
-  hirugarren adinerako zerbitzuak
-  umeentzako zerbitzuak
-  garbiketa eta mantenimendua
-  eraikuntzarako gremioak
-  arkitektura eta irisgarritasuna
-  animazio soziokulturala
-  hondakinen kudeaketa
-  berrerabilpena eta birziklapena
-  ekomezularitza
-  txikizkako merkataritza
-  bidezko merkataritza
-  teknologia berriak
-  trebakuntza eta aholkularitza
-  gizarte eta lan bitartekaritza
-  eta abar.

reas euskadi zenbait lan ildo garatzen ditu:

-  Herritarren sentsibilizazioa eta ekonomia alternatibo eta solidarioaren sustapena.
-  Barne eta kanpo trebakuntza ekonomia solidarioarekin erlazionatutako gaietan, eta, bereziki, laneratze enpresen kudeaketan.
-  Gizarte aholkularitza.
-  Euskal Autonomia Erkidegoan laneratze enpresa talde baten sustapena.
-  Laneratze eta gizarteratze enpresak sortzeko babes zerbitzuak.
-  Gizarte enpresen komertzializazio, hedapen eta beste zerbitzuetarako babesak.
-  Gizarte aholkularitzako tresnen sorrera eta ezarpena.
-  Tresna finantzario etiko eta solidarioen gaineko babes eta hedapena.
-  Gizarte klausulen eta laneko merkatu babestuen sustapena.
-  Bitartekaritza lana gizarteratze eta laneratze arloko erakunde publikoekin.
-  Harremanak beste erakunde, mugimendu eta herritarren sare, unibertsitate eta ikerketa zentro, komunikabide eta abarrekin.

reas euskadi sareak *REAS-Sareen Sarea* delakoan hartzen du parte. Azken hori 1995ean sortu zen, Estatuko erakundeen talde gisa, eta, 2000. urtetik aurrera, hamaika lurralde sare biltzen dituen plataforma bat da (www.economiasolidaria.org). Era berean, REAS *Sozioekonomia Solidarioaren Sare Globala* delakoaren eta Quebecen 2001ean osatutako (35 herrialdetako ordezkartzeekin) *Ekonomia Sozial eta Solidarioa Sustatzeko Kontinente Arteko Sarea* (www.ripest.net) delakoaren parte da. Sare horiek modu aktiboan hartzen dute parte toki, eskualde eta mundu mailako Foro Sozialetan eta elkartasun eta justizia globalaren aldeko herri mugimenduen beste ekimen batzuetan.



ekonomia alternatibo eta solidarioa

reasen helburua *ekonomia alternatibo eta solidarioa*ren ondorengo printzipioekin konprometitutako elkarte, enpresa eta finantza ekimenak sustatu, babestu eta koordinatzea da:

1. berdintasuna

Enpresa edo erakundearen jardueretan protagonista diren pertsona guztien interesak modu orekatuan asetzeta.

2. lana

Enplegu egonkorak sortzea eta aukerarik gabeko edo trebakuntza gutxiko pertsonak laneratzea. Pertsona guztiei lan baldintza eta soldata duinak eskaintzea, euren garapen pertsonala eta erantzukizuna bultzatuz.

3. ingurugiroa

Ingurugiroa errespetatzen duten ekintza, produktu eta produkzio metodoak ahalbidetzea.

4. lankidetzeta

Lehiakortasunaren ordeztasun, lankidetzeta ahalbidetzea, bai erakundearen barruan zein kanpoan.

5. irabazi asmorik gabe

Ekimen solidarioen helburu nagusia gizakiaren eta gizartearen sustapena da. Etekinak gizarteari itzuliko zaizkio, gizarte proiektuak, ekimen solidario berriak edo garapenerako lankidetzeta programak babestuz, besteak beste.

6. inguruarekiko konpromisoa

Ekimen solidarioak euren inguru sozialarekin konprometitu egongo dira. Horrek beste erakunde batzuekiko lankidetzeta eta sareko partaidetzeta eskatzen du, esperientzia solidario zehatzek eredu sozioekonomiko alternatiboa sortu dezaten.



reas
euskadi

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria

Ekain Kobak kalea 3, 1 • 48005 Bilbao • Tel.: 944 160 566 • Faxa: 944 156 319
reaseuskadi@reaseuskadi.net